

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Ina R. Fernández J. Arana 27. URJN

5. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

50 pta.

1986 Uztaila/Abuztua



Udari dagokion ale honetan, FRANTZIZKA ETXEBESTE dakarkigu herriarraren gogora.

Emakume zahar hau hain ezaguna dugu!

Herrian zehar ibiltzen da egunoro, bere poltsatxoak eskutik zintzilik. Buruko txanorik ez zaio inoiz faltatuko, uda eta negu.

Blagan hasten bagara berarekin, etengabeko kontu bitxiak kontatuko dizkigu.

Emakume hau da gure pertsonaia ale honetan.

Zenbaki honetan baita ere, Juan San Martinen eskutitza, Lupe Artola eta Martin Ugalde eta Kaminazpiren artikulak, Herri giroa, Kultura, Arrantza, Eskolak, Kirolak, eta Udalaren erabaki eta berrien sailak, hilero bezala zabaltzen dira irakurlearengana.

Hurrengo alea herriko jaietarako aterako dugu. Bitartean, uda eder igarodagula guztiok, herritar eta kanpotarrok.

LAPURRAK, DROGAK...

Hondartzara joan ginen, eguraldi ederra ekiten zuelako. Eguzkiak gogor berotzen zuen egun hartan, baina haize freskoak arintzen zuen giroa. Olatuak ere baziren, eta plisti plasta uretan mugilduak jolas egin genuen. Zein arratsalde eder! Zein gozo eta atsegina zitaigun herriko paraje zoragarri horretan ordu pare bat igarotze!

Etxera bihurtzeko ordua iritsi zen. Arropak jantzi, eta, patxaran eta blagan, espigoian barrena gentozen lasai lasai. Ez genekien zer ikusi behar genuen etxean sartzerakoan... "Lapurrak!!!!". Bai, lapurrak sartuak ziren etxean, gu hondartzan ginen bitartean. Pena ematen zuen etxea ikusteak. Guztia botata, zabaldua, ankaz gora. Eta ahal zuten guztia **ebatsia**.

Kasu hau ez da bakarria izan. Lapurreta gehiegi ari da ematen herrian. Etxe batetik bitxi edo joia guztiak, bestetik dirua, handik eta hemendik dena ebatsi, harrapatu, ohostu. Baserri batera, badira gutxienez zazpi aldi joan direla lapurrak. Ongi zaintzen dute noiz alde ekiten duten etxeok, beurrak sartzeko.

Lapurrak, diotenez, eta herri guztian esaten denez, ez dira beti kanpotik etortzen. Herrikoak omen dira, oso ezagunak. Eta gehienetan beti berak, eta ez itxura txarrenetakoak.

Balkoian geunden eserita, blagan. Halako batetan, danbaf, kolpe bat entzuten dugu. Begiratzen dugu, eta mutil gazte bat zen, galtza gorriduna, kotxe bati kristala hautsi eta barrengo maletina ebatsita korrika zihoana. Udalzainak etorri

ziren, baina mutila ezkatutua zen orduko.

Herriko udaltzainek ezin dute karre-rarik egin, behin eta berriro atzeman arren, berehala kalean direlako.

Droga, lapurreta, eskala haundi eta txikian, herrian eta herriarrek egin omen da. Droga erosteko diru asko behar bait da. Batzuren negozioa horrela egiten da.

Gazteriari beste bide zuzenagorik, lanerako posturik, eta beste erraztasunik eskaintzen ez zaion bitartean, gaiztakeria ugaritu egingo da. Erraza da gazteen kontra hitz egitea. Baina gazteriari eskaini diogun mundua ez da batera egokia. Lanik ez, irtenbiderik ez, biharko esperantzarik ez, jakin ez noiz izango duten lanpostu bat... Egun guztian zer eginik ez, beti gurasoei dirua eskatu behar... Ez dute, ez, gazteek kulparik haundiena. Mundu hau, eta gure herria aldatzen ez dugun bitartean, halako gauzak gertatuko dira. Eta guk kritikatu egingo ditugu, baina kritikarekin bakarrik ez da ezer egiten.

Gizartea aldatzen saiatzen ez denak, ez du kritikarako deretxorik. Bakoiak egin behar du, bere neurri txiki txikian, txikian, haundian, ala haundi haundian, ahal duen guztia, gazteei mundu zuzenagoa eta garbiagoa eskaintzeko.

Horrek ez du esan nahi, gertatzen ari diren gauzen aurrean, isilik geratu behar dugunik. Lapurretak, bortxaketak, etabar, zabaldu eta salatu egin behar ditugu, eta behar diren neurriak hartu.



BIDASOA'KO IZOKIAK (SALMOIAK)

Gure errietan industria indartu da-nean, Euzkadi ko ibaietan bukatu egin da euren artez bezala zian izoki edo sal-moia.

Orratik, naizta leenago baiño askozar gutxiago, oraindik artzen dira izokiak Bi-dasoa ibaian.

Izokia garrantzi aundiko kontua izan zian leengo denboretan Bidasoa'ko erri-etan, batez ere gure errian ta inguruan. XIV mendeko aginetan irakurtzen denez or-durako ba-ziran, izoki arrantzarako agaz eta sarek eginda ibaian jartzen zituzten nasa izeneko tranpa tresnak.

Leen esan dan bezala izokiak naikoa garrantzi zuen gure iriko bizitzan, naikoa irabazi bide aundia zala dirudi; beintzat arazo au zala-ta eztabaida aundiak izan zituen gure erriak auzo erriekin batez ere ibai-ko beste aldekoekin. Gure erria bera zala ortarako eskubidea zuen bakarra esaten zuen gure erriak, indarrak ematen zion arrazoiak baliaturik noski.

Baifia ibai-ko bere nagusitasunak beti ezin iraun zezakean, noizbait bukatu egin bear zan eta alaxe 1856-1857 garren ur-teetan Prantzia ta España'k Bidasoa ibaia bi Laterrien muga zala ta bi alderditakoak eskubide berdiñak zituztela erabakia artu zutenean bukatu ziran izoki nasak.

Baifia nasak bukatu ba'ziran ere izo-kiak artzea ez zan bukatu. Ori ezin zezakean, Ari bokaru goxoa zan eta irabazi ederrak ematen zituen arraiak aal zan be-za la artu egin bear zan, atzeman egin

bear zan; eta ordutik aurrera itxasontzie-kin sarek atzemanen asi ziran. Mende onen leenbiziko urteetan 70 itxasontzi txiki inguru ibiltzen ziran izoki arrantzan ibai-ko bi alderditakoak zenbatuta.

Ta atzeman ere orain baiño geiago egiten zan. Bai alajainal Urtean batez beste 4.000 izoki artzen ziran eta inoiz (noizbait) 5.000 ere bai. Bere baliua lau laurleko edo lau peseta kiloa. Gaur egu-nean baiño gutxiago, baiña ordurako ba-zan zer bait, ia eguneko aloger edo jor-

Geroago asi ziran kairaberaz atze-maten. Karabiñeru bati, dirudienez muga zaintzen denbora nola pasa ezin asmatu-ta zebillen bati bururatu zitzaion kairabe-rar arrantzaten astea. Ori ola ba'da ta gaur dituen jarraitzaile mordoak ikusirik, asmatzaile edo inbentoreen zerrendan jarri liteke jakin ezker bere izena.

Izokia ez da nor-nairen jakia. Asko izango gera ni bezela bere zatitxo bat egundo aera eramán ez degunok. Eta ez muxin egiten diogulako. Baifia sakela izan dan askotan jan kontuan errejimena jartzen duena.

Aundizkiak ez dute olako ezinñik izan.

1756 garren urtean izokia zala-ta egundoko naspilla izan zan. Urte artako Aste Santuko erregeren janaldiak goi mailakoak izan bear zutela bururatu zitzaion orren arduradunari ta Felipe V erregearen ministro Jose Patiño jaunak

gure iriko udalari idatzi zion egun aietan atzemanen ziran izoki gutxiak bidaltzeko.

Berrotaran'dar Jose alkateak bere mendeko bat bereala bidali zuen Zuber-noa Priorato'ra izoki billa. Bat bakarra atzeman zutela erantzun zioten, baiña gutzi ederra bera ta parrokiako apaiz Zamora'tar Tomas'eri saldu ziotela.

Alkateak, Ori jakiniñ, apaizarengana bidali' zuen mandataria, gertatzen zana-ren berri eman eta izoki eske. Baifia apa-iz ez zegoan izokia inñori emateko, ezta erregeri ere, ta bere izena eman nai ez zuen bateri bidali ziola izokia esan zion mandataria.

Alkateak ere ministruaren agindua bete nai ta bera joan zan apaizarengana ta Madrid'tik artu zuen eskutitza erakutsi zion. Baifia gutzia alperrik; ari burua ma-kurtzeorik ez zegoan. Ta apaizak izokia bere kontura Donostia'ta bidali zezake la ta Ventas'en Zamudio abizeneko epaia-ri bat zaitzaile jarri zuten gau ta egun ogei ta lau orduan, inñor ba'zeraman kendu zezaien.

Baifia an ez zan izokirik agertu.

Geroago errian zabaldu zanez, Kai-kuengi baserrian lasai asoi jan omen zuten apaizak eta bere lagunak España'ko erregerentzat nai zan izokia.

Etzan ergela gure apaizal!

Kamiñazpi



ESKUTITZAK

ALDIZKARIA ZABALTZEA KOMENI

HONDARRIBIA aldizkariaren zuzendaria:

Argitaratu dituzten lau zenbakia-ki jarraitu ditut, parterik gehiena irakurritz. Herriari behintzu oso lan ona iduritzen zait eta bihoa nire zoriarik hartasuna.

Oraintsu, Jon Bilbao bibliografoa-kin mintzatzean, zuen aldizkaria aipatu nion eta ez zuen horren berririk. Uste dut bai zuerri eta bai berari komeni zaizuela HONDARRIBIAren zabalkundea, Jonek bere EUSKO BIBLIOGRAPHIA obraren zerrrendetara eramanez, eta eskertuko ni-zueke orainarte aterat dituzten lau alea-tatik bana igortzea. Hara hemen bere helbidea...

Juan San Martin

TXANDAKO OKINDEGIAK

Uztailak 6: Garmendia.
13: Martinez.
20: Arratibel.
25: Garmendia.
27: Martinez.
31: Arratibel.

Abuztuak 3: Garmendia.
10: Martinez.
15: Arratibel.
17: Garmendia.
24: Martinez.
31: Arratibel.

Arratibel: Zubietta kalean, tel. 641975.
Garmendia: Santiago kalean, tel. 641136.
Martinez: Kale Nagusian, tel. 641212.

TXANDAKO BOTIKAK

Uztailak 1-6 : Erauskin.
7-13: Mai.
14-20: Iraola.
21-27: Erauskin.
28-31: Mai.

Abuztuak 1-3 : Iraola.
4-10: Erauskin.
11-17: Mai.
18-24: Iraola.
25-31: Erauskin.

Erauskin: S. Pedro kaleko 28, tel. 641018.
Mai: Alm. Alonso kalean, tel. 642191.
Iraola: J. Ugarte kaleko 5, tel. 641027.

LUC
Argazkigintza

Zuloaga kalean, 18 Tel. 641972
HONDARRIBIA

GOIKOETXEA

Janaridenda

S. Pedro kalean, 51 Tel. 641029
HONDARRIBIA

HERRI GIROA

★ Herriko PSOEko kontzejalek moztu bat aurkeztu edo presentatu dute Udaletxean, kai berria dagoen bezala uzteko. Kontzejale hauek diotenez, egiten ari diren obrak Hondarribiko turismoa galdu dezaket, eta udalak azterketa sakon bat egin dezala eskatzen dute. Baina, bitartean, obrak berehala eta bapatean gelditu daitezela.

★ Hotel Franco batzuten hasi ziren maiatzan, eta, dagoeneko, bota dute goitik behera. Lur jota geratu da hotel hau ere, Hotel Carlos V eta Hotel La Concha geratu ziren bezala. Hotelen beharrik ez dagoenik ez du esan nahi horrek, batzuk ankar gora doazen bitartean, beste batzuk inauguratu egiten dira eta. Azken denboraldian, Hotel Pampinot ireki da Kale Nagusian, eta, zurrumurruak diotenez, beste bat prestatzen ari dira Murruan. Hotel Francoren tokian 12 etxebizitza egingo dira.

★ Arterder Udal Batzorde berri berria ere sortua da Hondarribian. **Soratu** esan dugu, **jaio** ez bait dugu nola jaio den. Ekainaren 4an bileran monstro bat egin zen Udaletxean, erate inguruan mugitzen den hantab petsonaiek egin. Hasiera eman zio, beraz, proiektu hori. Hasiera eman, hala ere, gauza askori eman zio herrian. Zaila ez da hasiera, jarraitzea baino.

★ Hotel Carlos V izan zen eremuan, 12 etxebizitza egitera doaz. Aspaldi toki hori libre ikusita gero, orain Hendaida aldera begiratzen, oztipo berri bat edukiko dugu.

★ **HERRI BERTAN** kooperatibako etxentzat, berriz, beste eragozpen bat helduko ez ote den beldur dira. Puntaleko urbanizaketa egiteko, 55 milioi behar dira. Nondik ateratu dira pila hori? Udalak esan omen zuten beraren gain joango zela, Gobernuko emango zuten subentziotik faltatuko zena. Baina orain Gobernuko ez omen du subentziotik emango eta 55 milioi oso osorik falta dira.

★ Herriko Alde Zaharra berrito piztuzten, edo berpizten hasia dugu. Taberna, ostatu, hotel, denda eta zerbitzu berriz ari da hornitzen herriko paraje eder hau. Oraingo honetan, Kale Nagusian jantoki berri bat inauguratu dela adierazten di-zuegu, lehenago estankoen egon zen lekua berean, hau da, Kale Nagusiko 7an, Udaletxea baino goraxeago, eskubiko espaloian.

★ Txoko-Maite etxea bota zuten inguruan, zurezko hesia dago jarria, barrenean etxe berriak eraikitzen diren bitartean. Askotan, hesi edo baila horiek pintaketak egiteko tokirik proposenak izan ohi dira. Orain ere hartarako aprobe-txatu dira, baina pintaketa bikaian eta politik egin dituzte ikastolako haurrek, hesiaren apaingarri.

★ Ekainaren 15ean, Arzeitiko Musika-bandak kontzertua eman zuten Gipuzkoa

Enparantzan. Maiatzako beste igande batez, Getariako Musikabanda ere etorri zen. Bai bat eta bai bestea hemen ari ziren beuren errepertorioko obrarik politenak eta gustagarrienak jotzen, baina entzulegorik apenas zen kontzertua entzuten. Ia inor ez, gehienez hogeiaren bat lagun. Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu nahi die herrikako musikabandi, eta herri herri ibil daitezten diru laguntza ematen die. Honela, beti herrian bakarrik bu beharrene, beste herrietara joateko poza dute. Baina gero... entzulek ez badute...

★ Ekainaren 20, 21 eta 22an festak egin zituzten Sorotetako biztanleek. Badira urte batzuk auzo honetan jaio bereziak egiten hasi zirela, eta, antolatzaile ugari hurbiltzen denez, festagiro bikainak ospatzen dituzte urteoro jaia. Santa Engraziako auzoan ere hasiak ziren halako jaia egiten, baina aurten porrot egin zuten, nahiko diru ez zutelako bildu.

Sorotetan, kalejaria, futbol eta pilota partidoak, krossa, toka, sukaldaritza, dantza, sokamuturra, zezenuskuo, bertsolari, trikitixa, dantzari, herri bazkaria, eta auzoko hildakoen aldeko meza izan ziren, batez ere. Festa ederrak, benetan!

★ Ekainaren 22an Hauteskunde Orokorak izan ziren, gure herrian ere. Beste sail batetan agertuko ditugu emaitzak. Hemen hauxe bakarrik nahi genuke azpimarratu: Arrantzaleek, azkenaldi honetan gertatzen ari zaizkien gauzagatik gutziz haserreturik, ez zutela urte Jofradian hauteskunderatko mahirik jartzten, eta Itsasestean jarri zirela Kofradian jarri behar zirenak.

★ Ekainaren 24, San Juan eguna ospatu zen. Gizalditako ohiutari jarraituz, bezperan suak piztu ziren herrian zehar. Hauetako bat kai zaharrean egin zen, haundikiro eta jende askoren aurrean. Bertan izan ziren, baita ere, ikastolako dantza taldeak, su inguruan euskal dantzak eginez. Bestalde, herriko musikabandak San Juan martxa jo zuten alde zaharreko kaleetan barrena, hau ere urteoro egiten den bezala.

San Juan bezperako sua urtez urte datorren usario ungarikaria da euskaldunen-

tzako. Lastima ez dela orain antzinako jaigiro alaiak egiten.

★ Jaizubiako Elkarteak batzarre nagusia egin du, eta lehendakari berria ere aukeratu dute. Beraz, hemendik aurrera, lehendakaria Gebaralarreko Joxe Mari Artola izango da.

★ Udan sartu berriak garenean, parroikia aldetik ere badator berri berezi bat, hemezortzi urtez Hondarribiko bikario izan den Don Inazio Zabaleta, Irungo bikario egin dutela, eta laister egingo duela alde gure herriatik. Haren lekuan Don Martin Iturbe geratuko da.

★ Arrantzaleen arazoak zirela eta, estranjertik etorritako kotxe batzuk sufritu zuten poliki. 30 auto gurrupillak ebakita, 12 kristalak hautsita, eta 2 erreta, gertatu ziren egun pare batean. Ez dugu uste berriro etorriko direnik turistak horiek gure herriara!

★ Gaizki aparikatzen dutenak, sakaletik poltsa ateratzen hasi daitezke. Grua bel-durgaria gelditu gabe dabil hara eta hona, eta, harrapatzen bazaitu, 3.800 pezetara ordaindu beharko duzu. Kontuz ibili!

★ Montaña auzoan, Jutziz-ederra izeneko baserrian, taberna berri bat irekitze- ra doaz udal garairako. Buelatiko bat eginez, tragu gozoak egiteko aukera izango dute udalazalek.

★ San Martzialek ere izan zuten bere eragina Hondarribian. Jende asko joan zen Irurera, eta baita ere hangoak honera etorri beuren muturra berotzera, edo berotuta gero. Dena dela, San Pedro egunez, Yola tabernan baziren ongi berotuak gazte batzuk, eta barrengo beroari eutsi ezinik edo, tabernan txiki-zioa egiten hasi ziren, gurtia hautsi. Udaltzainak pakeak egitera auzotara ziren, baina ez omen zen erraza. Pakea lortu ezinik ari zirela, udaltzainen autoari lau gurrupillak ebaki zizkieten. Ez diezugu kontatuko horren ondorio-riki!

★ Ekainaren 22an, Españako Diputa-tuen Kongresurako egin ziren hauteskunderat, Hondarribian eman ziren bo-tak, honela izan ziren.

	Zensoa	Abstentzioa	%
1982	7.986	1.819	22,78%
1986	9.335	3.456	37,02%

	PNV		HB		EE		PSOE		UCD + AP	CP	CDS
	1982	1986	1982	1986	1982	1986	1982	1986	1982	1986	1986
Udaletxean	435	356	195	220	155	144	235	193	90	53	60
Portuan	793	630	262	325	161	175	125	79	82	101	45
Biterin	941	714	378	500	249	271	188	166	145	134	64
Amute-Mendelu	577	433	253	315	151	220	409	368	116	97	81
GUZTIRA	2.746	2.133	1.088	1.360	716	810	957	806	433	385	240

GURE PERTSONAIA

SANZ-ENEKO FRANTZIZKA

—Nere aita ibilia zen belan, itsasuan, txalupan, eta esaten zuen: "haral iparra zirkari, hemendik hamar minutura, hemen da trumoi", eta, esan bezela, etortzen zen. Asko ezagutzen zuen nere aita, eta etortzen ziren aiuntamentutik ere galdetzeraz. Ez zuen eskolarik nere aita

—Nola zuen izena zure aita?

—Nikasio. Oso intelektuentea zen, eskolarik ez zuen baina. Aiuntamentutik askotan etortzen ziren galdetzeraz ia halako apellidua nungoa zen eta. Dena zekien nere aita.

Gure etxe aurretik askotan igarotzen da emakume bitxi hau. Lehengo batean ere hementxe ikusi nuen, beti bezala jantzia, artilezko txano marroi, elastiko berdekoa luze, bata ilun, eta plaiara urdinez Eskueta, plastikozko poltsa haundi bat.

Frantzizka desiatzen egoten da batean batekin hitz egiteko. Hitz erraza du, edozer gai ukitzeko kapaz da, nahiz eta modernoena izan. Garbi dago emakume dottore honek ondo jarraitzen dituela eguneroko bizitzari. Lehengo eta oraingo gauzak egoki ezagutzen ditu. Hondarririko historia, esaera zahar, oihuturak, kutxa batean bezala ditu gordeak Frantzizkak.

—Zein dira zure apelliduak?

—Nire izen osoa Frantzizka Etxebes-te, Saralegi, Igarza, Olasagasti da.

—Zenbat urte duzu?

—Nik, istantian larorrei. Nere amonaren anaia Errenteritik etorri zen, Mikes zuen izena. Hau belakain Ameiketan izandua zen. Telleri-mollekua zen. Nere amona ere handik etorri zen, eta nere aitari esan zion ez izateko, ez ekartzeko neska-me-morrotarako umiak, umiak gerrarako ekarri zituela berak eta nere aita esan zion: "ama, gaztiak gerra eta..." Eta bere amak ez ekartzeko umierik. Nere amonak 92 urte zituen, eta bere besoetako biak gerrara joan ziren, quinta del 21, Marruekosera, Tetuan, Larachen, eta han bere lagun guztiak gasolinakin erre zituzten, bufi Desastre de Annual, zortzi bizirik gelditu ziren. Nire anaia San Juan de Luzen hil zen, San Marzial egunian, Joxe zen. Bestia, berriz, Mateo.

—Gerrarako zirela umiak, esaten zuen zure amonak?

—Bai, Mateo jaio zenean, amonak esan zuen: "hau gerrarako da". "Gerrarako?" "Bai". Eta bestia, Frantzizka jaio, eta "orain ere mutikua?", hau ere gerrarako da ba? Hiru urte eta hiru hilabete egin zuten quinta del veintinukoak.

—Zure gurasoak beti Hondarriribian bizi izan ziren?

—Nire amonak hiru semiak karlisten gerran euki zituen, eta nere ama eta haurrak, hiru hilabeteuak, Billabonara eramantzen zuten. Familia Billabonan, Errotaxa harren, eta hura ikustera elurretan anku



tsik jua omen zen nere amona Billabonara. Eta horrela...

—Zuk asko omen dakizu eguraldiari buruz ere.

—Bai horixe. Niri aita erakutsi zidan gauza hoiak. Gure etxera kapitana bat ere etorri zen, estudiatura eh?, eta asko ikasia zen, baina pratika nahi zuen, eta nere aita kanpratikatu zuen. Hara, orain naranja da, eta trumoi etorriko da.

—Naranja?

—Bai, aurtien naranja izango da.

—Baina, zer da hori?

—Tximista hori hoiak, bat bezela hamar izaten dira, eta alkar jotzen dute, eta igual Donostian zaparrada botako du, eta hemen ez. Niri hala iruditzen zait, aurtengo uda oso trumoiutsua izango dela. Eta tximista hoiak dira peligrasuenak, bai, sega edo halakoren bat suertatu ezkerre. San Pedro egun batian ere bero ikaragarria zen, eta nere aita esan zuen "gaur desgrazia izugarnak pasako dira". —"nola dakizu?" "Bai, hortxe fango dire belak, edo motorrak edo kanoak, eta pasako dire desgraziak", bero ikaragarriak, eta galeria, braal, eta gero batzuek itto eta besteak salbatu. Eta nere aita bazekien. Eta aurtien ere egingo ditu bero ikaragarriak, zergatik trumoi biekien artian eguzkiak indar haundia du, eta ingo ditto bero haundiak, biño gero hoiak biek jotzen dutenien elkar, tximistak ateratzen dire, bitartean ez. Hoiak egin behar dute atera.

—Eguraldia asko aldatu al da lehenetik?

—Ilargiak du bere kanbio guztia. La luna tiene todo poder, gu hiltzeko ere bai, e?

—Baita? gu hiltzeko?

—Baita.

—Baina, nola?

—Zergatik etortzen da ilargia, eta ilargiak du poderia denetako. Etortzen da denbora ederra, e?, eta u! gaur denbora ederra, bihar denbora onen esperantza. O!... "goiko Nagusi hori nolakua den, horrek dena badu", esaten zuen nere aita, eta gero horral zer etortzen den, galerna bat eta... Askotan galerna etorrita ere, ez du euririk egiten, zergatik trumoiak ez dire osurik, eta partitu egiten da, batzutan Frantzizka, bestetan Españira, ja, ja! gaur goizian ere bota du Donostian euri zaparrada eta hemen ez du bota.

—Hortaz zu ilargiari garrantzi haundia ematen diozu?

—Bai, bai, eguzkiak baino zazpi aldiz gehiago du ilargiak. Udan eguzkiak, ateratzen denean, indar haundia baldin badauka, ezin da trumoi etorri, ezin. Baina ilargiak itsasoa zirkatzen badu, trumoi oso alde da, bertan. Beti esaten zigun aita, hil aurtien ere "goiko Nagusi hori lehengua da, eta iñori farrik eta burlik egin gabe bizi e!, zergatik goiko Nagusi horrek indar haundia du, eta zeinien emango dion matrilluakin kaskal inork ez du jakiten.

—Nola ikusten duzu mundua?

—Ezin da inñitu mundu hau nolakua den, hau dena, graziak goiko Nagusi horrek eguzkia debalde, euria debalde, heriotza debalde, dena dituela... Guk elkar ez dugu ikusi nahi. Hemen ez da inñorekin fiatu behar. Zuk esaten badiozu gauza bat bateri, hark denik konfiantzarik haundiena baldin bada ere, igual egingo du kontatu. Baina esaten badiozu zuk arbola honeri kontu bat, eta deskantsatzen bazera, horrek ez dio inñori kontatzen, e?

—Zuri zer iruditzen zaizu zuri, aurtien baseritarrak kosetxa ona izango dutela, eta arrantzaleak ere arraina atzemango dutela?

—Kosetxa? "Maiatzian, txiki bantzen, haundi bantzen, maiatzian buru nintzen", ogiak. Aurtien patata tenpranak hala ere, fallo haundia du. Itsasoa ere berotu egiten badu asko, arraia harrotu egiten da goitik, eta aia harrapatzen dituzte. Arraia ez da berriare aitu, baiña gu bai.

Frantzizkak blagan jarraitzen du, eta gu ere bai pozik barerekin. Baina amaitu egin behar, eta agur esaten diogu. Eskerrik asko, Sanz-eneko Frantzizka, larorrei urteko andere txunpartari.

Isosu

TXUNTXUMELA

Belardenda

Santiago Kalean HONDARRIBIA

ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel. 641773
HONDARRIBIA

MEI

Mertzeria

San Pedro kalean, 49 - Tel. 642071
HONDARRIBIA

GOGOETAK

1950 garren urtearen inguruan atzerriko hona Sorozabal bi anaiak beren gurasoekin bizitzera etorri ziren. Gaztetxoak izanik (9-10 urte) ederki hitz egiten zuten euskaraz gurasoei esker, nahiz eta atzerrian igaro izan lehen haurtzarora.

Kanpotik begiratuta eta herriko mutikoen gonbaratuz nahiko diferentzia ziren —jakkera zela, orratzeko modua zela. Heziketa ere, Hego Ameriketako lurralde batetik zetozenez, nahiko desberdina zeukaten.

Barrengo izaerari begiratzuz ordea, ez dut uste desberdintasun nabarmenak zeudenik: jostalariak ziren biak, bata nahiko bihurria, bestea formalagoa, inguruko gaztetxoak bezala euskaraz bai erderaz mintzatzen ziren... (Jakin beharko litzateke halaz ere heziketa desberdin batek zenbateraino markatzen duen izateko era).

Herrira etorri berriak zirenez, famiak ez zeukan oraindik jendearekin trato haundirik eta gure bi anaiak noski ez zu-

IMANOL VARGAS

ten ezta ere lagunik. Eskola bat aukeratu behar izan zuten gurasoek beren bi mutikontzat azaroko hilabetean sartuak bait ziren eta Freretan (Fraile eskolan) onartuak izan ziren.

Sorozabal bi anaiak laugarren mailako ikasketak bete behar zituzten. Eskolara ziren lehen egunean amak lagundu zituen eta zuzendaria atarian ikasle berrien zain zegoela bereganatu zitzaizen eta azkar-azkar denak elkarrekin hurbildu ziren laugarren mailako gelaraino, berandu xamar bait zen. Gelako atea irekia zegoen eta maisua atera zen pasillora zuzendariarekin eta amarekin hitz egitera.

Bitarte horretan anai txikiena zen Jose Sorozabal, gela barruan zegoen mutil batetaz erreperatu zen. Tol —esan zion bere buruari— mutil hori nere etxe ondoan bizi duk. Agian bere laguna izango nauk. Bai! Horrelako lagun bat nahiko niake!

Burutazio gartsu eta baikor horiek ausartzen zituen bitartean konturatu zen mutil horrek berak. —Imanol Vargas alegia— begiratzuz ziola. Eta horra non delako Imanol hori hasten zaion burfaka, keinuka, ixekaz, mingaina ateratzen...

Eskolako egun hura nola edo hala igaro zen, urteak ere igaro dira. Jose eta Imanol, auzokoak izanik ez dira inoiz ez elkarrekin mintzatu, noizean behin agurtzen dira, ez dira lagunak izatera iritsi, aspaldianik bakoitzak bide desberdinak hartu bait zituen.

* * *

Gaur egun, oraindik, Joseri bihotzean min ematen dion zimokoa bezalako da Imanol Vargas.

* * *

Guadalupe Artola

TRIANGELUKO ARRAIN FRANTSESAK

Arrain frantsesei matrikula jarriko omen diote.

Hegalean: F. kotxeei bezala

Historian zehar inoiz gertatu ez dena ikusi behar ete dugu?

Hara gure herriko historiari zer dion. Euskerriko arrantzaleek **Kofradiak** aspaldi-aspaldi sortu zituzten, eta Hondarribiako **Done Pedro Kofradia**, 1361an eratu zen. Batez ere bi gauzetarako: 1) herriko arrantzaleen arteko lan-arazoak konpontzeko, eta 2) itsasoak **kalak** errepetatuta eta gainontzekoei errespetu arazteko.

Orain, kala hauen artean bat, **Eskote**koa, frantsesek triangelu arraro batean sartu digute, eta asmo oker batekin: Hondarribiako arrantzaleei itsaso alde horretan arrantza egitea debekatzeko.

Zer da hau? Seiehun urte han lanean aritu eta gero, Europako elkarteetan sartuak ginelu uste genuen momentuan, sortu digute frantsesek, arrain handiak arrain txikiak jateko xixtima zaharra: **Zortzigarren C zona** izenekoa Triangelua. Ez dute triangelu hau itsasoan klerionarekin markatu, ez baita kleraren marka uretan geratzen, eta markatzeko xixtima honen ordez, lehorreko mapa batetan, paperean eta tinta beltzez, egin digute inbentoa.

Hondarribiako arrantzaleak ezin dute konprenitu triangelu honen arrazoia.

Nola ulertu sorginkeria hau?

Baina hor daude Frantziako gerrontziak, barratik nor irtingo et noraldea joango den begira, zain. "Liberté, Fraternité eta Egalité" lemairen izenean, noski

Arazo honetan tristena zera da, herri

oso honen eskubideak berez argi egon behar luketen garaian, Europako herri guztiak demokrazian askatasun eta eskubide berdinak izan behar litzuzkeen memento honetan, hemengo arrantzaleetako batzuk horrelako legezaparko debekuak nozitu beharra.

Non geratzen dira herri honetako gizonen eskubideak?!

Simon Bolivar handiak esan zuen behin, itsasoan goldaketan aritzea alperrikako lana dela, hau, egia da, baina gauroko egoera hau epaitu behar balu, ikusiko lioke arrantzuaren joan-etorriko mila eta mila ibilera luze eta heriotzez baliztua dagoen honi arrantzaleen lan eta nekeak irabazitako eskubide agena.

Martin Ugalde

BURBUXAK

Artileak pisura
Neurriko elastikoak

Santiago kalean HONDARRIBIA

LUIŞA

Arrandegia

Zuloaga kalean Tel. 641757
HONDARRIBIA

GALARZA

Garbigaidenda

San Pedro kalean HONDARRIBIA

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobeak

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

AXULAR
LIBURUDENDA

Didaktika jokoak
Euskal liburu eta diskak

Matxin de Arzu kalean - HONDARRIBIA

I. ALKAIN

Mertzaria - Ehungitza

Arrantzaile Auzoan, 13
HONDARRIBIA

KULTURA

SANTIAGO EGUNA ETA KUTXA ENTREGA

Santiago egunez egiten den arrantzaleen jaia gizalditako kutsua du Hondarrribian. Lehendabizi, San Pedro egunez eginak dira Kofradiako ordezkari edo zuzendarien hautaketak. Abata Nagusia, txikiak, eta Itsasoko alkateak egun hartan izan ziren aukeratuak, eta, Santiago eguzen berriro herriko parrokiara joango dira itsasontzietako patroak.

Mariñelak, Kofradia Zaharrean bilduko dira, eta hemen antolatzen da **kortejoa**.

Lehenik, herriko Musika Banda, Okondori, martxa joaz. Gero, KUTXA buruan daraman neskatza lirain eta xarmanta, Kutxan, Kofradiako agiri zahar zaharrak, pergamino, zilarrezko gurutzak eta erlikarioa, Elkartearen kontu-liburuak, Akten Liburua, itsasgizonen dagozkien aginte-argiriak, eta gizalditan gorderik dauden bitxiak daramatza neskatxak buru gaireko Kutxan.

Lehen, Kutxan eramaten ziren, baita ere, 1606tik 1678 arteko Abaten bereizketen Aktak, Hondarrribiko arrantzaleek Europa eta Amerikan barrena, arrantzu bila eta beuren negoziaketetan egiten zituzten bidaien kontuak; Klemente VIII Aita Santuak 1595an Kofradiari emandako Bulearen pergamino zaharra; manuskripto interesgarriak; San Pedrori, bere egunean, arrantzaleek jartzen zizkieten zilarrezko lau giltzak; baleak atzematera joaten zireneko agiriak; 1506an Kofradia antolatzeak egindako Araudia, etabar.

Kutxaren inguruan, txamarrak gorritz jantzirik, arraunlari trebeak, arrantzara arraunez joaten zireneko oroigarritzat.

Gero, Kofradiaren bandera ederra, gorria, erdian bere eskudoa duela. Bandera hau, 1968an egina da. Lehengo zaharra, urte hartan atera zen azkenengo aldia.

Aztetik, gaur arte izan den Batzordea, eta, aldatu behar bada, gaur beuren kar-

guak utziko dituen. Azkenik, itsasontzietako patroak eta mariñelak, guztiak apain eta burua kapelu beltzaz estalirik. Lehen, Abatak eta Alkateak, kopazko sonbreros eta kapa beltz luzez joaten ziren.

ITSAS AGINTARIEN ALDAKETA

Elizan sarturik, sakristia daoz zuzenean, eta, han, Batzordeak, Kofradiaren kontu osoaren garbiketa egingo du arrantzale guztien aurrean, herriko alkatea eta bikarioa buru direlarik, diru sarrera eta irteera, arrantzu eta gainerako guztiak garbi agertu behar dira. Hala behar, eta luze joaten da urte guztiko zehaztasunen berri ematea, baina itsasgizonen onerako denez, guztiak arretarik haundienez jasotzen dituzte han esanak. Denen berri eman ondoren, atera egiten dira Kutxatik bere barruan dauden agiri, dokumentu, ondasun, eta bitxi guztiak, eta itsas-agintari berriak egiten dira Kofradiaren sinbolo den Kutxaren jabe, beurek barrena sartu handik atera direnak. Halaxe egiten da urteoroko Batzarre Nagusia, azkeneko 600 urte hauetan.

Elizako ekitaldia amaiturik, etorreran ere berean, berriro ere Kofradiari jeisten dira, Musika Banda, Kutxa, arraunlari, Batzordea, eta mariñelak. Kanpaiak, musikak, eta itxasferoek jartzen dute jaigiro berezia, bai gohiti eta bai behitirakoan, guztien buru Abatak eta Alkateak direlarik, beuren sedazko banda beltz ederrekin bularra gurutzaturik, zilarrezko giltzat zintzilik, eta eskutan balearen bizarrez eginko agintemakila beltza daramatela, beuren agintearren ezaugarri.

Kofradiako Etxe aurrera heldurik, musikari jarraiki, Kutxa daraman neskatxak jirabira etengabeak egingo ditu, ikusleentxo artean, Hondarrribiko itsasgizonen zoriona opa izanaz.

Hauxe da, Hondarrribian, Santiago egun ospetsu eta haundia, urte urte, eta gizaldiz gizaldi, aitonengandik gurasoengana, eta gurasoengandik haurrengana igaro den jai eder eta herrikoa. Lanbide-tik sortutako eguna, eta lanerako onuragarria behar duen anai arteko ekintza herritarra.

LIBURU AZOKA

Abuztuaren 4tik 10era Liburu Azoka egingo da, Bar Itxaropena eta Bar Gran Sol artean dagoen Arrantzale azokoen enparantzan. Liburu eta Diska Azoka egin ohi zen lehenago gure herrian, herriko gazteek egina, AMUITZAK elkartekoei, hain zuzen. Eta esito gogorra eduki ohi zuen. San Pedro kalean ezagutu genuen, eta gazte talde ugaria hurbiltzen zen bai lanera, eta bai ikustera, erostera, entzutera.

Orain, Eusko Jaurlaritzak antolatzaile.

UDAL LIBURUTEGIA

Herriko liburutegia dela eta aspaldi honetan nahiko zalaparta dabil, batek gutun bat bidaltzen duela egunkaritarra, beste batek erantzuten diotela, etabar. Gai honek ere badu gure Udalan bere izanbidea sortzeko albidadea. Orain dela egun batzuz, bilera bat ospatu zen, Kale Nagusiko Zuloaga jauregiarekin zer eta nola egin erabakitzeak.

Dirudienek, herriko liburutegia hor-

txe jarriko da. Baina noiz? Hortxe kokxa. Bitartean, keja gehiegirik izan ez dadin, Itsasetxean dagoena bultzatu behar omen da. Nola? Udala prest omen dago ardudun bat kontratatzeko Itsasetxeko liburutegiaz arduratze, herriko egiten omen den artean.

Ez al dago omen gehitxo gai honetan?

IRUNGO PLAZARA

Irungo Udalak hiru hilabeteko ateratzen duen aldizkaria da "Plazara", gure irakurlerik gehienek jakingo duten bezala. Bostgarren zenbakira iritsi da, eta, beti bezala, azkenalea ere oso bikain egina azaldu zaigu. Aldizkari sakona eta bidebetez arina da, erraz eta aguro irakurtzen dena.

5. garren zenbakian, gure HONDARRIBIAri buruz Txomin Sagartzazuk dakar lan nahiko luze eta ona. Eskerrik asko.

TXINGUDIKO MARISMAK ARRISKUAN

Egunkari batek jarri gaitu erne, eta

gure herriari ere dagokiolako dakargu gure orrietara. Txingudiko marismak betirako galtzeko arriskutan daude, egiten ar diren ekologiarren aurkako ekintzagatik. Aranzadi taldeak Gipuzkoako Foru Aldundiarri arazoari gogor heldu dezala eskatu dio, zeren eta Gasteizko Gobernuak ez du neurririk hartu marisma hauen gailzoriko estuasuenean. Hondarribiak ere badu zerikusi galanta Bidasoa eta Txingudiko ekologian, nola ez? Bidasoatik ateratzen diren hondarrak, eta hibai erretzen egiten ar diren orek eta aldaketek herriko ekologia ukitzen dutelako.

Ez legoke gaizki gure herriko Udalak, eta talde ekologistek arduraz eta kezka hartuko balute gai hau, gure inguruaz zaintzeko.

Eneko

GABI

Loradenda

Al. Alonso kalean Tel. 642107
HONDARRIBIA

NEKAZARITZA

BASERRITARREK
NEGAR EGITEN
DUTELA?

Nere ustez garrantzi handia duten hiru gauza nahi ditut aipatu gaurok honetan. Batez ere, jende batzuk esaten dutenean datorkidalako burura, alegia herriar guztiok eskubide berak ditugula, baina eguneroko bizitzan ez dela gertatzen horrela, eta beti beti nekazariak direla edo garaia kalteutsak.

Orain dela hilabete batzuk, Hondarribiko Udalak txostenia edo informe bat ateratu zuten herrian egongo den PLAN JENERAL berria argitzeko. Eta informe hori kaleko etxe guztietan partitu zuen.

"Kaleko" etxe guztietara, esan dut, eta ez naiz konfinitu. **Baserritarra ez bait zuten zabandu.**

Nik galdetu nuen zergatik ez ziren banatu baserritarra, eta hauxe erantzun zidaten: bukatu egin zirela, baina gehiago egongo zitzutela, eta orduan banatuko zitzutela.

Hiru edo lau hilabete pasa dira, baina baserritarra ez dira iritsi informe bedienkatuok. Gainera, badaude txostenak, horixe daude 500 baino gehiago, bere politsetatik atera gabe. Zergatik ez dituzte banatzen?

Baita ere, aurreko hilabeteetan pardoia edo eroldia jasotzen ibili dira etxetxe, eta askotan ez beretik bi eta hiru aldiz pasatuz nobait aurkitu arte.

Hemen ere baserritarrok baztertuak geratu gara. Baserrietan bati dagoeia jendea, edozeinek daki. Eta baserriz baserri pasa beharrene, xelebrekeria bat asmatu zuten, alegia, baserritarrok leku jakin batzuetara joan behar genuela, Hondarribian enpardonatuta egon nahi badugu.

Zergatik diskriminazio edo bereizketa hiru baserritarren?

Hau ere ez da gaur goizeko kontua gure herri honetan. Gure baserritarra datozen kartak hor egoten dira lotan, ahalik eta ezagutzen gaituenen batek hartu arte, edo denda batean utzi arte.

Hilabeteak ere igaro izan dira, eskutitza bere tokira iritsi arte. Gertatu dira behin baino gehiagotan, kartak zerbitu or-daintzeko zirela, multak adibidez, eta guk jakin dugunerako, epeak igarota zeudela, eta errekariguarekin pagatu behar izan dugula.

Esate baterako, ganadu feriatako berriak ere berdin. Korroesera joan, eta aipatzen diozu, eta esaten ditzute beurek herriatik 200 metro baino harantzago joan beharrik ez dutela, edo ezin dutela.

Orduan, nik hau diot: guri karta bidaltzen digutenean, ez al dute bestek bezala jartzen seilua? Edo gure baserritarraio ekarri behar ez badute, zergatik ez digute ematen guri seiluaren balioa? Edo zergatik ez du diguten zerbitu Udakal arazo honi buruz?

Hauek ikusita gero, oraindik askok esango ote dute, guztiok eskubide berdina edo berak ditugula? Agur.

Ximon

HISTORIA
TRISTEAREN
JARRAIPENA

Ekainak 6. Ostirala. Esteban Olaiola, Hondarribiko legazketarien ordezkaria, eta Juan Mari Urbieta, Gipuzkoako Federazioko Lehendakaria, Bruselaren zuten, Merkatu Komunekoekin hitz egitera joan-nak, Eskotako kalaren arazoa konpontzeko. Egun honetan, lasai etortzeko esan zuten, eta Madrilerira iristen zirenerako, Bruselaseko negoziaketen erresultadoa adieraziko zitzaizela.

Baina ez 6an, eta ez 7an izan zen erresultadorik.

Ekainak 7. Larunbata zen. Bruselaren ez zela ezer lortu ikusirik, Bilbon bilera bat egin zen, hau erabakiaz: armadore eta tostaratkoen artean batzarra egin zedila, eskintzak erabakitzea. Batzarrean, berriz, Bizkaiko eta Gipuzkoako flota guztiak Bidasoa istea pentsatu eta erabaki zuten.

Ekainak 8. Igandea. Hondarribiko Kofradian ere bildu ziren patroaiak, barkuko nola banatu estudiatzeko, 400 ontzi, gutxienez, etorriko bait ziren.

Ekainak 9. Astelehena. Goizeko zazpitanen hasi dira barra isten itsasontziak. Egun guztian Gipuzkoako eta Bizkaiko lehendakariak bilduta egon dira Kofradian, puntu guztiak aztertuz. Hurrengo egunean, manifestazioa egitea erabakitzuten da, Hondarribiatik atera eta Santiago zubiraino.

Frantzesek gerrako bost barku jarri zituzten Endeaiako hondartzara parean, guri bildurra sartzeko edo.

Ekainak 10. Asteartea. 12.000 lagun, gutxienez, bildu ginen manifestazioan. Bizkaitik eta Gipuzkoatik jende asko etorri zen. Gure herria, berriz, oso osorik. Romero eta Oliverrek belarriak be-ro bero sentituko zituzten, hemen egin ziren oihuekin, gizon horien dimisioa eskatuz. Amute, Mendelu, eta Irunen barrera, joan ginen mugaraino, eta han eskuiztat bat eman zitzaion Administrazioko ordezkari.

Bitartean, kai berriatik hasi eta Kofradiaraino, barkuz eginko sei barkakida zeuden, Bidasoaren ertz batetik besteraino, hibaiko pasadizoak itxi. Beste barku pila bat kai berrian zegoen.

Baita ere, egun horretan frantzesek esan zuten hibaia desblokeatzeko bazen, negoziatzeko hasiko zirela berriro. Baina arrantzaleak oso haserre zeuden, lehen ere bi aldiz engañaturik izan zirelako. Maiatzean ere blokeatu zuten Bidasoa, eta orduan ere Frantziak engañatu egin zituen eta. Desblokeatzeko esan, eta gero kasurik ere ez.

Egun honetan, Santanderren ere hango arrantzaleek konzentrazio bat egin zuten, frantzesen aurka.

Ekainak 11. Asteazkena. Barrak blokeatuta jarraitu zuten. Baina orain arte mugitu ez zirenak, hasi ziren herrira agertzen. Euskal Gobernuak eta Espainako or-

dezkariek bilerak bat egin zen Kofradian. Denek esaten zituzten desblokeatzeko Bidasoa, eta presio indarrez ez genuela ezer lortuko. Bide gogor horiekin ez dela ezer kontsegitzen, eta "txintxuak itzateko". "Ondo portatzen baina", esperantza onak zeudela, eta negoziaketak ongi joango zirela.

Jendea, berriz, lehen ere beste horrenbeste esan zutela oroitzen zuten, eta burla egin zituztela.

Goizeko 9tan, lehendakarien jenda, Director General de Ordenación Pesquera, Rafael Jaen-ekin bildu da. "Ez daogo erremedioirik: barkuak kendu egin behar dira Bidasoatik. Bestela ezin da berriro Bruselaserira joan". Jendea leporaino da go horrenbesteko burlarik, baina azkenean obeditu egin behar. Barra irekitzen da. Barku guztiak badoaz beuren portuetara. Ia inork ez zuten sinesten ezer lortuko zenik.

Anekdotak bezala, hau kontatuko dizuet: ez dudala inoiz hainbeste jende ikusi gure Kofradian, gure-etxea ematen zuela egun hauetan, jendea goiti, jende behiti, bulego eta sala guztiak kazetari edo periodistaz beterik. Bazirudien beurek zirela bertakoak, eta gu artotzak. Gaur sikiera, denak alde egin dute.

Ekainak 17. Asteartea. Berri okerragorik ezin. VIII-C zonaren ordez, baldintza emanezina jarri dizkigute frantzesek. Akabo gure esperantzak! Bruselasek ez dator ezer onik!

Ekainak 18. Asteazkena. Ondarrun bilera egin da, Kofradiatik lehendakari guztiak joanda. Eta mugan piketeak jar-tzea erabaki da, Merkatu Komuneko arrairik ez dadin sartu.

Ekainak 19. Osteguna. Piketeak joan dira mugara, baita egurra hartu ere, poli-zien eskutik. Gezurra dirudi! Kamioiak bi-jilatzen egon ziren arrantzaleak, baina ez zuten gauza handirik lortu, ba goardia zibilek eta polizeiek, tanketa eta guzti, arrantzaleen kontra egin zuten.

Ekainak 25. Asteazkena. Merkatu Komuneko ministroen kontseilua bildu zen Luxenburgon, eta berriro ere han zer-bait lortuko zelakoan egon ginen, baina dena alperrik izan zen.

Ekainak 27. Ostirala. Espainako pre-sidente Felipe González, La Haya-ra joan zen, Merkatu Komuneko presidente guztiekin biltzera. Hara joan ziren arrantzaleen ordezkariak ere, Felipekirekin egoteko esperantzaz. Zer? Betikoa, kasurik ere ez zutela egin. Esteban Olaiola hor ibili da Bruselas, Luxenburgon, eta La Hayan. Berak kontatuko luke guk baino hobeto.

Ekainak 28. Larunbata. Urria arte ez dira berriituko negoziaketak. Zer egin? Itsasora atera behar, ahal den lekura, biziko bagara.

Ekainak 29. San Pedro eguna, gure Zaindariaren eguna. Kofradiako buruak aukeratu genituen: Joxe Migel Etxebarria, Amabaz, Abata Nagusia; eta Esteban Olaiola, Itasako Alkate.

Ekainak 30. San Marzial. Ontziak prestatuta daude, eta bihar itsasora.

Andres

GARINS
Erlotutegi-Bitxitegi

Zuloaga 16ean Tel. 643308
HONDARRIBIA

ARRATIBEL
OKINDEGIA
Egur labea

Zubieta kalean Tel. 641975
HONDARRIBIA

ESKOLETAKO ORRIA

UDARA IRITSI DA

Urtero bezala, kurtsuaren bukaera iritsi da, eta horrek batera ikastetxeak hutsik gelditu dira. Beraz, konponketak egiteko garaia iritsi da. Badakigu udan oso zaila dela langileak aurkitzea eta edozein obra hasi baino lehen, denbora behar dela presumpuestoko egiteko eta onartzeko, baina ikastetxeak berezitasunak ere kontutan hartu behar dira. Ekaina bukatuta arte okupaturik bait daude.

Honi gehitzen badiogu Herriko Jaiak, hauek bukatu eta berehalaxe ikastetxeetako aktibitateak martxan jartzten direla eta, Uztaila eta Abuztua bakarrik gelditzen dira beharko diren konponketak osatzeko.

Hezkuntza Saileko Departamenduak Udaletxeak ikastetxe publikoen konponketen ardura dituzte. Eta zoritxarrez, arazo bat edo besteengatik, kurtsua hasten dugu urtero langileen soinu eta lanen laguntzekin.

Aurten ere Aginagalde Ikastetxean konponketa dextente egin behar dira (tabi-garen bat, zenbait gelen prestakuntza, etabar).

Ea beste urteetako esperientzia ikusiaz, agertzen diren oztopoak ahalik eta azkarrenak moldatu, eta zentroan sartzen garen irailan, behar den egunean eta zuzenean lanean hasteko oztoporik gabe.

ETA GERO ZER?

Aldizkari honetako lehenengo alean ikastetxe guztiko kaslen kopurua agertzen zen. Datu hoiak begiratu, aurten O.H.O.ko ikasketak bukatzen dituztenak eta zentro hauek huzten dituztenak 232 ikasle dira. Agian baten batek kurtsua errepikatuko beharko du, edo ta zenbait gai falta zaielako, ezingo duete beste zerbitu egin. Baina, dena dela, oso kopuru ederra da zentro hauetatik aterako dena. Eta, nor doaz hainbeste neska mutil? Zein aukerak dute bere etorkizuna bideratzeko?

Herrian jarraitu nahiko baluteke be-

ren ikasketak zabalitzen, Institutua dute aukera bakarra. Bestela beste nunkaberat joan behar dute.

Aurten asko joango dira REM delako esperientzia berri batera. Bi urtetako ikasketak dira eta bertan gaiak landuz, gainera tailer batzuek ere antolatutakoak dira.

Beste batzuek Lanbide Hezkuntzako Eskoletara joango dira, batzuek Iruren bertan, beste batzuek Martutenen, bertan ikasketak euskeraz jarraitzeko aukera dutelako.

Badira beste batzuek ere Pasaira joango direnak Itsas Eskolara. Beraz, gienbat herriatik irten behar dira. Egokia al da hau? Ezinezkoa al da gure neska mutilak herrian gelditzea, beraien ikasketak jarraitzen?

Askotan aipatu da Hondarrribian beharrezkoa dela Lanbide Hezkuntzako Zentro bat. Ikusi behar da, dudarik gabe, zein beharrak dituen gure herriak eta gure bai-larrik eta horren araberan zerbitu egin.

Loli

ESPRESIO TAILLERRA

Kasino Zaharrean aurkitzen den erakunde honek, haurrentzako ikastaro berezi bat antolatu du udarako. Uztailaren 16an hasi, eta 30ean bukatuko da. Goizeko 10etatik 12tara.

Egingo diren lanak, lokatsa, antzerkiak, txotxongiloak, marrazkiak, jokoak, etabar. Matrikularen prezioa, 1.800 pezeta.

ESKOLETARAKO KONTSEILUAK

Eskola bakoitzak bere kontseilua edukiko du hemendik aurrera. Udalak aprobata duenez, PNVko kontzejal edo zinegotziak Institutuan, Biterin eta Soroe-tako eskoletan egongo dira, HBko zinegotziak, Aginagalden, PSOEkoak, Puntaleko eskolan; eta EEkoak, Mendelun.

Partiketa honen arabera, 884 ikasle- ren ardura izango du PNVk; 185 ikasle-rena, HBk; 39 ikasle-rena, PSOEk; eta 8 ikasle-rena, EEk.

Proposamen hau PNVk egin zuen Udalan, eta berak onartu ere egin zuen. PNVk esan zuenez, udalarako egin zen azken hauteskunde botoen porzentai- gordeaz egin da, baina beste talde politi- koak ez ziren konforme izan.

Ainbara

UDALEKU IREKIAK

Udalak lehenbiziko aldiz eratu duen esperientzia berri honek harrera ona izan du herrian. Uztailan zehar bi txanda dau- de eratuak, txanda bakoitzean 60 haur direlarik.

Pasteleriak, okindegiak, etabar ikus- tera atera dira, baita Zugarramurdi-ko

bazulaoa, baserriak, eta herriko inguruak. Haurrak jolasgiroan dabiltzala esan be- har, oso gustura, dibertituz, jolasean, es- kulanetan, eta uda ezin hobeto aproba- txatuz ari dira igarotzen.

Datorren urtean ere beste horren- beste egin beharko da, dudarik gabe.



ARRAUNLARI

Jatetxea

Butron Ibilbidea Tel. 641581
HONDARRIBIA

MARTINEZ ORTIZ

Haltzaridenda

Butron Ibilbidea
Tel. 642647 dendakoa - 643423 etxekoa
HONDARRIBIA



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDARRIBIA

AROZENA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

JUAN ALKAIN JAUREGI E.A.

"SUPRA" eta "DE DIETRICH" en
banatzaile bakarra

Mendelu - Tel. 642025 - HONDARRIBIA

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA

UDAKO JAI GIROA

SANTIAGO BEZPERAKO EUSKAL JAIALDIA

Uztailaren 24an, urteoro bezala, euskal jaiak egingo dira, Santiago kalean. Aurtengoak honela antolatuta dira:

— Arratsaldeko 5,30tan, SEBASTO-POLEKO TITIRITEROAK, haurrentzat.

— Gaueko 10,30tan, baita ere Santiago kalean, "GASTIBELTZAREN KARBINA", Bizkaiko Maskarada taldeak eginko antzerkia.

SANTIAGOTXOKO JAIK

Santiagotxo-Arkoll auzoan jai egitarau ederra antolatuta dute, uztailaren 24, 25, 26 eta 27rako. Santiago bezperan, arratsaldeko 7retan hasiko dira festak, buruhandi, afari eta dantzaldiaz.

Santiago egunez, goizeko 8rak ezker, bada nun ongi igaro eguna. Diana, txistulari, txalaparta, meza, mezaondoko salda, toka, bertsolari, errosario, buruhandi, harrijasotze, dantzari, nazioarteko asto lasterketa, dantza, zezensuzko eta lotara



Larunbatean ere festak, dantza eta zezensuzkoa. Eta igande, meza, toka, bertsolari, bazkari, harrijasotzen Aste II eta Larretxea, berriro ere asto lasterketa, trikitixa, etabar.

Ongi igaro nahi duenak, badaki nora jo behar duen egun hauetan.

MAGDALENAKO JAIK

Portuko txoko xarmanta honetan festak prestatzen ari dira. Santa Maria Magdalenaren karrika lorez, girnaldaz, argiz eta ikurrinez apaindua jarriko dute. Kale hau izango da, segurua, Hondarribiko kalerik txikiena, baina baita alaiena ere.

Kale honetan bada denda, jatetxea, saia, etxe tipiko, eta denetik. Eta, gainera, arratsaldero, emakume taldeko bat kina jokatzeko, etxe atarian eserita, armonia ederrean.

Santa Maria Magdalenako jaiak jende asko eramaten dute bertara, eta animazio izugarria egoten da egun guztiz, arratsez, eta gauez. Animazioa eta errespeta, noski.

JAIETARAKO SUBENTZIOAK

Herriko udalak Gobernuari diru laguntza eskatuko dio, herriko jaiak direla eta. Herriaren bizitzaren zehar sorturiko usarioa gordetzen denean, Gobernuak di-

rua ematen du, usuario hori ez dadin galdtu. Orduan, Hondarribiko Alardea eta Aste Santuko prozesioak gai horretan sartzen direlako, diru laguntza jasotzen du urtero gure Udalak.

Aurten ere izango du, noski.


ARTISAU GAZTA FERIA

Arrantzale auzoko enparantzan, uztailaren 27an ospatuko da, egun osoz. Eguraldi ederra egingo du. Zergatik? Egun horretan bertan, Pasturala antzeztuko delako Barkuxen, Xuberoan, eta Pasturala egiten den guztietan, eguraldi ona egiten duelako.

Feriako partaideak, hauek izango dira: "Benetako Gazta" elkartetik, 5 partaide etorriko dira. "Artzai Gazta" elkartetik, zazpi partaide. Eta Mendelutik, Beñardo Balda Zubillaga.

Antolatzailea, herriko Udala izango da.

Karmele



Herri Demografiaren goitibeherak

EKAINEKO HERIOTZAK

5ean: ANTONIA Echeverria Sagarzazu. 82 urtekoa - Hondarribian jaioa.

14an: M. CONCEPCION Berra Arocena. 74 urtekoa - Hondarribian jaioa.

EKAINEKO JAIOTZAK

1ean: ANE Merino Guevara. Domingo eta Arantzaren alaba. Zubietako Kalea - Guevara borda.

10ean: MAXI Castrillejo Iridoy. Jesus eta Margaritaren semea. San Pedro kalea, 37 - 1º.

16an: ENDIKA Mendez Macarrilla. Rafael eta Juliaren semea. Harma Plaza, 12 - 2º.

24an: IÑAKI Zuzaya Ancisar. Jose Ignacio eta M.ª Pilaren semea. Erreka baserria - Akartegi auzoa.

24an: TELMO Busca Roca. Javier eta M.ª Doloresen semea. San Pedro kalea, 7 - 4º.

EKAINEKO EZKONTZAK

Herriko semeak

1ean: AITOR Iriondo Martinarena - 27 urtekoa - Eibarren jaioa eta Irunen bizi dena.

MAGDALENA Rosellon Gonzalez 27 urtekoa - Caceresen jaioa eta Hondarribian bizi dena.

14an: JUAN MIGUEL Ugartemendia Lizargarate - 28 urtekoa - Hondarribiarra.

M.ª JOSEFA Ugalde Aguinagalde 24 urtekoa - Hondarribiarra.

21ean: JOSE Lasa Martiarena - 29 urtekoa - Irunen jaioa eta bertan bizi dena.

ANA M.ª González Sorondo - 27 urtekoa - Hondarribiarra.

EKAINEKO EGURALDIAREN DATOAK

Hondarribiko aireportutik jasoak.

Bataz besteko temperatura	17,8° C
Maximen bataz bestekoa	21,8° C
Minimen bataz bestekoa	13,8° C
Temperatura guztiz gorena	31,2° C
Temperatura guztiz behearena	8,6° C
Euri-itroak	93,9 L
Egun euriitsuak	14 egun
Ordu eguzkitsuen kopurua	166,2 ordu

KIROL TXOKOA

Inoiz baino kirol ekintza gehiago eratu da udarako.

Badago non egin kirola. Gogoia behar! (eta denbora, esango du batera baten).

Gaztetxoentzat, batez ere, erraztasun ikaragarriak daude, mota eta sail guztietan.

Zabaldur begiak, hasi zure kirola aurkeratzen!

TENISA

Lekua: Miramarreko pistak.

Datak: Abuztuaren 4tik 15era.
Abuztuaren 18tik 28ra.

Orduetgia: 9etatik 10etara: 18 urtez gorakoak.
10etatik 11tara: 7 urtetik 10 bitartekoak.
11etatik 12etara: 11 urtetik 14 bitartekoak.
1etik 2 orduetara: 7 urtetik 10 bitartekoak.
2etatik 3 orduetara: 18 urtez gorakoak.
3etatik 4etara: 14 urtetik 18 bitartekoak.

Izenematea: 7 urtetik 18 artekoak 850 pta.
18 urtetik 22 artekoak 1.000 pta.
22 urtetik gorakoak 1.500 pta.

OHARRA: Raketaren bat duenak eraman dezala.

MENDIZALETASUNA

Adina: 12 urtetatik 16 bitartekoak.
Data: Abuztuaren 8tik 23 arte.
Iraupena: Aste bat. Astelehen goizean irten eta larunbat arratsaldean itzuli.

Alojamendua: San Adriango aterpean.
Partaide kopurua: 50 pertsona.
Izenematea: 7.000 pezeta.
Argibideak: "Montañeros Iruneen", Iruenen.

SOKOAKO IGERILEKUA

Maila: Haserakoa.
Hobakuntza.
Adina: 6 urtetik 14 bitartekoak.
Data: Abuztuaren 1etik 31ra.
Orduetgia: 10etatik 13 orduetara.
16etatik 18 orduetara.

Partaide kopurua: 300 haur.
Izenematea: 4.000 pezeta.
Argibideak: Joseba Sarriegi.
Tfnoa: 64-16-71.



MIRAMARREKO IGERILEKUA

Maila: Haserakoa.
Hobakuntza.
Adina: 6 urtetatik 14 bitartekoak.
Iraupena: Abuztuaren 1etik 31ra.
Orduetgia: 10etatik 13 orduetara.
16etatik 18 orduetara.
Partaide kopurua: 300 haur.
Izenematea: 4.000 pezeta.
Argibideak: Miramarreko igerilekuan.

BASKET IKASTAROA

Maila: Haserakoa.
Adina: 7 urtetik gorakoentzat.
Partaide kopurua: 160 haur.
Iraupena: Abuztuaren 4tik 31ra.
Orduetgia: 10etatik 13 orduetara.
Izenematea: Dohainik.
Argibideak: Nieves Alza.
Tfnoa: 64-07-96.

HIPIKA

Lekua: "El Alamo".
Iraupena: Bi astekoa - astelehenetik ostiralera.
Data: Uztailaren 28tik abuztuaren 8ra.
Abuztuaren 18tik 29ra.
Adina: 8 urtetik gorakoentzat.
Orduetgia: 10etatik 14 orduetara.
16etatik 20 orduetara.
Partaide kopurua: 128 pertsona - 10eko taldeetan banatuta.
Izenematea: 7.000 pezeta.
Argibideak: "El Alamo".
Jaizubia Auzoan.

PILOTA

Partaidetza: 100 pilotaritik 200 bitarte.
Mailak: Benjaminak.
Alebinak.
Haurrak eta Gazteaurrekoak.
Zaleak.
Data: Abuztua 5, 6, 12, 13, 19, 20, 25 eta 27.
Orduetgia: 17 orduetatik 19etara.
Adina: 14 urtez beharagoentzat.
1-6-8-13-20-22-27-29.
Orduetgia: 20 orduetatik 22etara.
Adina: 14 urtetik gorakoentzat.
Lekua: Soroetako Pilotalekua eta Jostaldi Polikiroldegia.
Izenematea: Dohainik izango da.
Argibideak: Jesus Gonzalez.
Tfnoak: 61-58-36
61-83-93
64-39-50

ARRAUN IKASTAROA

Lekua: Arraun Elkarte (Puntala).
Moetak: Banko finko eta banko mugikorra.
Iraupena: 2.aste, astelehenetik ostiralera.
Data: Uztailaren 21etik abuztuaren 1era.
Abuztuaren 4tik 15era.
Abuztuaren 18tik 29ra.
Ikastaroaren prezioa: 500 pezeta.
Partaide kopurua: 125 pertsona.
Adina: 11 urtetik gorakoak.

OHARRAK: Ikastaroak eta orduetgiak, eskaeren arabera antolatuko dira. Igeri egiten jakitea beharrezkoa da. Adin txikiak, beuren guraso edo tutoreen baimen idatzia beharko dute.
Argibideak: Arraun Elkarte - Puntala - arratsaldeko seiretatik aurrera.

MANTENIMENDU-SOINKETA

Emakumeentzat
Adina: 18 urtetik gorakoak.
Data: Uztaila eta abuztuaren - astelehenetik ostiralera - egunean orduete.
Orduetgia: Goizeko 8etatik 9etara.
Lekua: Jostaldi Polikiroldegia.
Izenematea: 200 pezeta.
Argibideak: Maritxu Anzizar.
Tfnoa: 64-15-88.

ITSASKARI BAITA BELA IKASTAROA

Maila: Haserakoa.
Lekua: Itsaskari Baita.
Adina: 8 urtetik gorakoak.
Data: Uztailaren 28tik abuztuaren 8ra.
Abuztuaren 11tik 22ra.
Abuztuaren 25etik irailaren 5era.
Orduetgia: Goizeko 10etatik 1era.
Arratsaldeko 3,30etatik 6,30etara.
Partaide kopurua: 55 lagunekin taldeak.
Izenematea: 3.800 pezeta.
Argibideak: Itsaskari Baitan.



GOLFA

Joxe Mari Olazabal, Jaizubiko mutil gaztea goraka eta goraka ari da igotzen golfeko kirolean. Inglaterrako Four Stars Nazionalean bigarren postuan gelditu zen.

FUTBOLA

Hondarribiko Futbola Elkartek urteko batzarre orokorra egin zuen, eta, berriro ere, Yokin Etxaniz izan da lehendakari birraututa.

ESKUBALOIA

Hondarribiko Eskubalo Elkartek ere ospatu zuen bere batzarrea. Talde honek merito handi handia du, zeren Lehenengo Mailan jokatu du datorren tenporadan, eta erantzunkizun larria du goi mailako ekipoen artean ogi geratu nahi badi. Herritarren aldetik merezi luke babes gehiago.

Juanjo eta Erramun

GAZTEAK GARA

106 URTE DITUGU.

Aurrezki-Kutxen ideia munduan zehar zabaldu baino askoz ere lehenagotik hasiak ginen gu gipuzkoaren aldeko lanean.

Eta gaur Kutxa gazte bat gara. Eta, gipuzkoak bezalaxe, etorkizun oso bat daukagu eraikitzeko.





Mundua aldatzen ari delako. Eta oraindik gehiago aldatu behar duelako. Teknologia berriak, ohitura berriak eta erronka berriak daukagu itxaiten guztio.

Baina gure lur hau jadanik ohitua dago problemei konponbideak aurkitzen. Problema handiei, gainera, batzuetan.

Eta beti aurkitu izan du bere jendeen artean etorkizuna eraldatzeko behar hainbateko gogoa eta lehia.

Eta horretantxe gaude. Zerbitzuzko historia oso bat dugula atzetik. Eta eraiki beharreko etorkizun oso bat aurretik.

Geure etorkizuna. Gipuzkoar guztiona.



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL



AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA

UDALA

UDALAREN ERABAKIAK

Udalzain berriak

Aspaldi honetan gure Udalan hartu-atako erabaki batek, betiko monotoniatik aterako gaitu. Gauza interesgarria, benetan: Udalzainburua eta bost udaltzain berri izan dira hartuak.

Udalzainburu berria

Lehenengo, eta hemendik aurrera Udalzainburuaren buru egingo duena, Jose Javier Altuna Arranbide jauna dugu. Ameriketako bageuna, Sherif deituko

DIRUA BONBON

1986ko udako tenporadarekin batean, Udalak zenbat diru gastatu eta zenbat irabazi, aurrez atera behar ditu kontuak. Udan gastatutako gehitu egiten dira: langile ugariago behar da hondartza inguruan, kaleak garbitzen, etabar. Beste gastu batzuk ere sortzen dira, noski.

Bestalde, beroarekin batera jendea hondartzara hurbiltzen da, eta izozkiak (helatuak) gustora saltzen dira, eta erosten, tabernatxo bat ere ondo hartzen da ur ertzean, tragutxo batzuk egiteko, eta erre-freskoak edateko; patata prejitutxo batzuk jateko ere ez da gose haundirik behar, eta bateren batek saldu egin behar, kotxeak ere milaka datoz kanpotik, eta hondar ondo ondoan aparkatu nahi badute, ordaindu dezatela, ezta?

Kontuak kontu, dirua gastatzen du Udalak, eta bestaldekik sartu ere, sartzen da piska bat gehiago. Baina zenbat dira Udalak udan gastatzen dituen milioiak, eta zenbat dira Udalak udan irabazten dituen milioiak?

Kuriosoa bazara, begira hementxe bertan dituzun datu hauetara:

UDALAK UDAN GASTATUKO DUENA (prebisioa)

Parking langileak ordaintzeko	3.250.000
Gurutze Gorria ordaintzeko	3.904.342
Hondartzako gastu batzuk (komunak, parkineta ongi edukitzea, etabar) *	1.400.000
Komunetako langileak ordaintzeko	1.900.000
Bi udaltzain berri ordaintzeko	1.055.203
Gruako txoferra ordaintzeko	527.601
Brigadaren babes	601.716

GUZTIRA

12.639.014

UDALAK UDAN IRABAZIKO DUENA (prebisioa)

Parkinetik jasoko duena	8.800.000
Foru Aldundiak (Diputazioak) emango diona	14.134.687
Patata prejitutxo saltzeko baimenagatik	275.000
Izozkiak (helatuak) kioskoan saltzeko baimenagatik	924.000
Izozkiak hondartzan saltzeko baimenagatik	5.112.000
Hondartzan taberna jartzeko baimenagatik	6.000.000
Hondartzan Tin-Tin, Surf, etabar jartzeagatik	200.000
Komunak erabiltzetik	300.000
Dutxak erabiltzetik	300.000

GUZTIRA

36.045.687

genion, baina Hondarribian Udalzainburu titulotzat konformatu beharko. Hala ere, nere ustez, J.R., edo Bobi Ewing hemendik etorriko balira, kontuz ibili beharko luke gure Udalzainburu honekin, ez bait du uste txantxetan ibiltzeko asmoetan dagonik eta Guk, bere kargua ondo bete dezala, eta herriari zuzen zerbitzu dezaio, opa diogu bene benetan.

Udalzain berriak

Hiru udaltzain berri kontratu fijoaz sartu dira Udaletxeko plantillan. Hauek dira: Jesus Gonzalez Goikoetxea, Jesus Uragana Garmendia, eta Miren-Nekane Arzena.

Beste bi, Santi Jauregi eta Andoni Iriarte, hiru hilabeterako bakarrik izan dira hartuak.

Udan herri honetan sortzen diren zalapartak, eta etortzen den jendetza eta kotxe guzti horiek zuzentzen, izango dute nahiko lan. Baina gaizteak eta oso ongi preparatuak dira, eta sasoirik ez zaie falta. Badago udaltzain zuzenen premia herriko txoko askotan, eta ea iristen diren herri guztira.

Administratibo laguntzaile berria

Baita ere Udaletxeko administratibo lanetan laguntzeko, dirukutxa sailean hain zuzen, Maria Pilar Alza Sunsundegi izan da aukeratua eta izendatua. Lehen ere hortxe egiten zuen lana, baina denborarik. Orain, berri, kontrato fijoja egin zaio.

Arrantzaleen arazo larriari buruz

Arrantzaleen arazoa dela eta, gure Udalak erabaki batzuk hartu zituen itsasgizon hauei ahal zen neurririk haundienaz laguntzeko, alegia. Erabaki hauek itsasertze Udal guztietara bidali ziren, beurek ere apoiatu zezaten. Oraingoz, Bermioko udalaren erantzuna bakarrik etorri da.

Bermiotarrek, Hondarribikoak eskatuaz gainera, beste eskakizun batzuk agertzen dituzte, alegia, Carlos Romero eta Miguel Oliver jaunen dimisioa. Non bait, Bermiolaraino iritsi ziren Hondarribiko manifestazioak oihuka, eta oihu gogor haiei oiarztuna jaso dute.

Orain apostua egingo dugu, ezetz Madrilgo gizon honek beuren kargua utzi ltxuraz, besaulki edo silloi ederrean ipurdia ondo pegatuta edukiko dute...

Trafikoko seinaleak euskaraz

Euskara Azpibatzerdeak eskatuta, Gipuzkoako herri guztietara eskutitza utzi bidali da Hondarribiko udalati, euskaraz jarri ditzaten trafikoko seinale guztiak. Euskaraz errepidetan ere behar bait da.


Etxebizitza berriak

Nonahi eta perretxiuak bezala arid, era egiten etxe berriak. Gruak nonahi dau, de bistan. Ez da seinale txarra. Beste gauza bat zer preziatutakoak izango diren, eta nor eerosiko ote dituen etxe berri horiek. Ez edozeinek, noski. Eta herritar gutxi, seguru asko.

Dena dela, beste gauza bat ere badago: ea bistarako politak ala itsusiak eragiten diren, ea herri honek merxei duen errespetoa gordetzen duten egin diren, eta egiten eta egingo diren etxeak. Bidasoaz bestekaldera begiratu, eta Endaia ikusten dugu. Gure buruari jira eman, eta gure herria dugu begi aurrean. Alde ederra fatxada askotan, etxe estilo askotan. Hain desberdinak al gara?

Udalak eman ditu, oraingo honetan ere, etxe berriak egiteko baimenak. Kanpiñan, Saindua inguruan, Komandantza ondoko Marilaxa etxea bota eta gero hain etxeak egiteko, Hotel Carlos V zegoen lekuan, Santiagotxon, etabar, etabar.

Herria haundituz eta zabalduz doa. Ez dadila itsusitu.



"HONDARRIBIA" aldizkarian idatzitako nahi duenak, edo gure berri jakin nahi duenak, Udaletxeko 642340 telefonora jo beza, edo bertara joan eta Euskara Azpibatzerdeaz galdetu. Baita, Korreosetan Udalak duen posta kutxara (apartado de correosera) bidali idazlanak.